

Birziklatu badaiteke...



ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Zergatik erre?

Hondakinen kudeaketa penagarria Nafarroan

1. Hiri Hondakin Solidoen kudeaketa sistema eta egungo egoera Nafarroan

"Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integrala" (PIGRN) eta bertan planteatzen diren neurriak onartu direla eta ELAK beharrezkoa ikusten du PIGRNaren analisi sakona egitea, hartzen diren erabakiek Nafarroaren etorkizuna hipotekatuko baitu arlo honetan.

Nafarroako hondakinen kudeaketaren egungo egoera tamalgarria da:

- Hiri hondakin solidoak (HHS) %45,32 hazi dira 1996tik 2008ra, kontsumoaren hazkunde izugarriaren eta ekoizpen eta banaketa ereduaren aldaketaren ondorioz.
- 2008an hiri hondakinen %31 soilik birziklatu ziren. Birziklatu eta nekazaritzarako ongarri (konposta) bihurtu daitezkeen hondakin organikoak Montejurrako mankomunitateak bakarrik jasotzen dira bereiztuta konposta egiteko. Erriberan hondakin organikoek biometanizazio prozesu bat aplikatzen zaie gasa lortzeko. Guztira hiri hondakinen %10ari aplikatzen zaizkio bi tratamendu hauek, beraz hondakin kantitate handia da birziklatzen ez dena. Birziklatu daitezkeen hondakin organikoen %50 baino gehiagok zabortegian bukatzen dute.
- Nafarroako udalerrri batzuetan oraindik ez da plastiko ontzien bilketa bereiztua egiten. Beira eta papera soilik biltzen da bereiztuta, gainontzeko guztia edukiontzi berean jasotzen da. Sistema honek ontziak eta hondakin organikoak birziklatzea era-

gozten du, hondakinen zati handiena osatzen dute hauek. Hiri hondakin solidoek irtenbide egokia ematea bilketa sistema egokia ezartzean hasten da.



Hondakin bilketa sistema ezberdinak daude, baina denak ez dira eragingarriak. Zabalduen dagoen eredia 4 edukiontziana da: papera, beira, ontziak eta besteak. Bilketa honen bidez hondakinen %31 birziklatu ziren Nafarroan 2008an, hondakin kopuru handi batek zabortegian bukatu zuelarik, tartean hondakin organikoak, horrek dakartzan arazoekin: usain txarrak, filtratzen diren likidoak,...

Beste eredu bat 5 edukiontziana da. Bosgarrenak materia organikoa soilik jasotzen du, birziklatzen ez den materialetatik bereiziz. Horrela, materia organikoa konpost bihurtu daiteke eta zabor gutxiago eta "garbiagoak" bidaltzen dira zabortegira. Sistema honen arrakasta herritarren borondateak baldintzatzen du, aukerakoa baita hondakinak 5 frakziotan banatzea. Bosgarren edukiontzia jarri den Gipuzkoako herrietan 4 edukiontziko sistemarekin baino apur bat gehiago birziklatu da, hiri hondakin solidoen %35 birziklatzera iritsiz.

Eta azkenik "atez ateko" zabor bilketa daukagu, zeinek hondakinak 5 frakziotan banatzen dituen, baina edukiontziak

kalean ipini beharrean, etxe bakoitzeko hondakinak indibidualki jasotzen dira. Birziklatzea ez da aukeratzen, derrigorrezkoa da, horretan datza bere arrakastak. Bosgarren edukiontziak %35a birziklatzen badu, atez ateko bilketa bikoitza birziklatzera iristen da (Usurbil %82, San Francisco EEBBn %70).

2. 2010-2020 PIGRNaren Hiri Hondakin Solidoen azpi-programaren laburpena

Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integralaren (PIGRN) eta Hiri Hondakin Solidoen azpi-programaren arabera, bete beharreko printzipioak hauek dira:

- 3Rak deitzen direnak (murriztu, berrerabili eta birziklatu) dira lehen-tasun, zabor bilketa bereiztua udalerrri guztiera heltzeko ekipamendua zabalduz.
- Hondakin organikoen kudeaketa sistema lurralde osora zabaldu, orain ez baitago guztia tratatzeko gaitasunik. Bereiztua jasotzen den organiko kopurua gehitu egin behar da auzo eta etxeetan konpostajea bultzatuz eta etxeetako hondakin organikoak bereiztua jasoz.
- Biometanizaziorako instalazioetan eta zabortegean atera daitekeen biogasaren aprobetxamendu energetikoa.
- Hondakinen balorizazio energetikoa (erraustegia) ezarri birziklatu ezin izan diren hondakinentzat, zabortegeetan hondakin gutxiago pilatu ahal izateko.

PIGRNak alternatiba ezberdinak aztertzen ditu hondakin mota bakoitza kudeatzeko eta zehaztutako helburuak betetzeko, nahiz eta jasagarriak ez direnak aukeratu:

a) Zabor bilketa eredia

PIGRNren arabera, materia organikoaren edukiontziak (bosgarren edukiontzia) ez du ongi funtzionatzen. Bereiztua jasotzen duen organiko kopurua oso txikia da. Bereiztu eta Organikoa ez den partikula kopuru handia izaten du eta zaila da bereiztea, horregatik ateratzen den konposta ez da kalitate onekoa.

Ingurumen ikuspuntutik onuragarria litzateke bilketa eredia aldatzea, hondakin organikoak bereiztua bilduz eta kalitate oneko konposta egitea. Baina planaren arabera, bilketa sistema aldatzeak bere eragozpenak ditu: jendea kontzientziaztea; garraioaren ruta berriak koste eta berotegi efektuko gas (BEG) gehiago dakartza; eta ez dago konpostarentzako kalitatezko irizpiderik eta saltzeko benetako merkaturik.

Arrazoi hauengatik planak dagoeneko udalerrri gehienek duten sistema zabaltea aukeratu du. Montejurrako mankomunitatean oso emaitza onak izan dituen organikoa bereiztua biltzeko edukiontzia kenduko du. Eta lurralde osoan lau edukiontziren sistema zabalduko da: papera, beira, ontziak, eta beste guztia. Planaren arabera aukera arduratsuen eta errealistena omen da. Ez du planteatzen atez ateko bilketa bereizturik, aipatu ere ez du egiten.

b) Hondakinen tratamendua

Gaur egun organikoentzat eta birziklatu ezin direnentzat bi tratamendu ekipamendu daude: Erriberan tratamendu mekaniko-biologikoa eta zabortegea daude; Montejurran konposta egiteko instalazioa eta zabortegea. Baina Nafarroan biltzen diren hondakin guztiak bi instalazio hauetara bidaliz gero ere, ez lirateke ipinitako helburuak beteko,

beraz ez dira alternatiba gisa hartzen. Horregatik plan honek balorizazio energetikoa planteatzen du.

Planak honela definitzen du balorizazio energetikoa: *"zaborraren bolumena gutxitu eta hondakinen potentzial energetikoa aprobeztatzen duen prozesua, instalazioak behar duen edo kanpora esportatu daitekeen beroa eta energia elektrikoa eskuratzea ahalbidetzen du, zabortegien eta tratamendu mekaniko biologikoen berotegi efektuko gasen murrizketan lagunduz"*.

Planak balorizazioa defendatzen du ondorengo esanez "energia berreskuratzen duen erraustegia energia gehien sortzen duen aukera da, hondakin gutxien eramaten du zabortegira eta ingurumen inpaktu gutxien duena da. Era berean, ontzien eta organikoen tratamenduan birziklatu ezin izan diren hondakinak errez, eraginkortasun energetikoa handituko da".

Aurrekoa ikusik, balorizazio energetikorako azpiegitura berri bat ezartzea erabaki du nafarroako gobernua, hau da erraustegi bat. Nahiz eta oraindik ez duten esan non egingo den, 2015erako martxan egon behar da instalazioa. Beraz, beraien aukera hiri hondakinen %48 erretzea da, eta honi hondakin industrialen %30 gehitu behar zaio (2008ko datuen arabera, 133.000 T/urteko izan daitezke). Guztira 261.000 T/urteko bidaliko lirake erraustegira.

Tratamendu plantetan birziklatu ezin direlako bazterten diren hondakinak (plastikoak, beirak,...) ez lirake orain zabortegira bidaliko, hauek ere erraustegira bideratuko lirake. Hala ere, panak argi esaten du erre ezin daitezkeen hondakinentzako zabortegia behar dela.

Erre ondoren sortzen diren hondakin batzuk birziklatu ahal dira baina erraustarriskutsuak ere sortzen dira eta hauen-tzat segurtasun handiko biltegiak behar dira. Gainontzeko erraustsak zabortegian bukatzen dute. Beraz, beti beharko dira zabortegiak erraustegien hondakinentzat.

3. Nafarroako Hiri Hondakin Solidoen 2010-2020 programaren balorazioa

Egungo ekoizpen eta kontsumo ereduak hiri hondakinen hazkunde izugarria eragin du azken urteetan. Birziklatzea ordea estankatuta geratu da. Administrazioak lehentasuna eman dio erraustegiari eta horregatik ez da bultzatzen hondakinak bereiztuta jasotzea, ezta birziklatzea ere.

a) Ez du birziklapena areagotuko

- Egoera honetan, hobekuntza asko planteatu daitezke. Lehenik hondakinen bilketa bereiztua ezartzea, bereiztuta jasotzen diren material kopurua handituz, horrela, birziklapen tasak igoko lirake. Eta areagotze hori handiagoa izateko, beharrezkoa da materia organikoa bereiztuta biltzea eta konpostatzearen apustua egitea, horrela zabortegien erabilpena asko murriztuko litzateke eta gainera garbiagoak eta jasangarriagoak izango lirake.
- Planak berak aipatzen du organikoa bereiztuta biltzearen beharra eta bosgarren edukiontzia eraginkorra ez dela onartzen du. Baina beste alternatibarik ez du planteatzen ordea, atez ateko zabor bilketa adibidez. Birziklapena lehentasun gisa aipatzen zuen arren, hondakin organikoak ezinezkotzat hartzen ditu eta birziklatu

ezingo balira bezala tratatzen ditu. Ez dute esaten, baina errealitatea da materia organikoa erretzea ezinbestekoa dutela erraustegian sortuko den energia berriztagarri bezala saltzeko eta horrela etekin ekonomiko handiagoa ateratzeko.

b) Erraustegia ez da egokiena

- Nahiz eta horrela saldu nahi duten, errausketa ez da arriskurik gabeko jarduera. Bere kaltegarritasuna konprobatuta dago. Hondakinen erretzeak errautsetan pilatzen diren eta atmosferara igortzen diren kutsatzaile toxikoak sortzen ditu. Kutsatzaile hauen artean daude dioxinak, furanoak, merkurioa, beruna metal astunak, gas azidoak eta arnastu daitezkeen partikula ultrafinak. Toxiko hauek osasunean ondorio larriak sortu ditzakete, besteak beste, jaiotzatiko malformazioak, fetuen malformazioa, immuno sisteman, hormona sisteman eta nerbio sisteman gorabeherak, akatsak arnas sisteman, sistema kardiakoan... Horregatik, kontuan izan behar da prekauzio/prebentzio printzipioa osasunean eta ingurumenean sor daitezkeen kalteengatik, eta erraustegia bezalako azpiegitura kaltegarri eta jasanezina alde batera utzi.
- Gaur egun birziklatzen ez diren hondakinak (hemen daude konpost bihurtu daitezkeen hondakin organiko gehienak) zabortegietara doaz, eta horren aurrean planteatzen duen alternatiba bakarra erraustegia da. Planak hondakinen %48 erretzea planteatzen du, hauei hondakin industrialen %30 gehitu behar zaielarik. Honek 3Rak garatzea oztopatuko (murriztu, berrerabili eta birziklatu) eta zero zabor helburura iristea galaraziko du.

raziko du. Ez zaie gaur egun birziklatzen dena baino gehiago egitea komeni, horrela ez baitzuten nahikoa hondakin izango erretzeko. Bizkaiko Zabalgarbik adibidez gaur egun erretzen duena baino gehiago erre beharra du errentagarria izateko, energia "berriztagarria" sortzeagatik ematen dioten dirulaguntzak salbatzen du.

- Planak zabortegiaren eta segurtasun biltegiaren beharra onartzen du. Hauek badira erraustegiaren beharrak eta onartzen badira, atez atekoa eta honek behar duen zabortegia ere onartu beharko lukete, zabortegi hau garbiagoa eta txikiagoa izango baita.
- Onartezina da bereiztutako bilketa udalerrri guztietara oraindik iritsi ez den lurraldean, Montejurrako organikoa bereiztuta jasotzeko sistema kentzea eta hasieratik erraustegiaren alde agertzea. Planaren arabera "organikoen frakzioa erre egingo da konpostaren kalitatea txarra delako eta ez duelako merkaturik". Konpostak merkaturik ez duenaren aitzakiak ez du balio, erraustegien hondakinentzat merkaturia bilatzeko ahalegina egingo baitute, zergatik ez konpostarekin ahalegin berdina?
- Lehen pausua hondakin mota guztien bilketa bereiztua izan behar da, beti ere lehentasuna birziklapenak badauka eta ez beste interes ezkuturen batek. Eta bereiztutako bilketa ezarri ondoren birziklatzen ez den zatia modu arduratsuan, eta ekonomikoki, sozialki eta ingurumen ikuspuntutik modu jasangarrian kudeatu behar da; eta erraustegia ez da horretarako alternatiba onargarria.
- Erraustegia azpiegitura zentrala izango da, garraio beharizan handiduna,

garestia eta BEG igorpen handikoa. Ziklo konbinatuko zentralak baino gehiago kutsatzen du. Hiritarrek eta enpresek ordaintzen dituzten tasak garestituko ditu. Sortuko duen energia ez da garbia, ezta beraiek dioten bezala berriztagarria ere, osasunean eta ingurumenean eragin larriak izango ditu eta hondakinak pilatuko ditu zabortegian. Hurrengo 50 urteetako hondakin politika hipotekatuko du (erraustegia errentagarri izan arte). Erraustegia elikatu beharrak prebentzio, berrerabiltze eta birziklatze politikak aplikatzea eragotziko du, bukatu dira 3Rak. Onura aterako duten bakarrak erraustegiekin eta bertan sortutako energia "berriztagarriarekin" negozioa egiten duten enpresa handiak dira.

– Planak erraustegia eraikitzearen alde egiten du eta alde batera uzten du hiri hondakin solidoak zementu industria bezalakoetan erretzea. Aukera hau baztertzen du industriara bideratzeko hondakinek tratamendu berezi eta garesti bat behar dutelako, eta horri garraio koste altua gehitu behar zaiolako, hondakinak sortzen diren hiri guztiak ez baitira egoten instalazio hauen ondoan. Industrian hiri hondakinak erre tzea alde batera uztea kontuan izatekoa da Portland S.A. enpresak Olaztin duen lantokian balore energetikoa duten hondakinak erabili nahi baititu erregai moduan, onura ekonomiko handia ekarriko baitio. Baina jarduerak kaltegarria izaten jarraituko du langileen eta inguruko biztanleen osasunarentzat eta ingurumenarentzat. Hala ere, Nafarroako gobernuak eman dio biomasa erretzeko baimena, eta hurrengo pausua hiri hondakinak erretzearena izan daiteke, planaren aurka eginez.

– Hondakinen balorizazio onena murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea dira. Ez dago teknologiarik hondakinak pertsonak baino hobeto balorizatzeko dituenik.

c) Ez dira Europako Hondakinen Zuzentarauak betetzen

PIGRNak Europako Hondakinen Zuzentarauak betetzen dituela esan, errealitatea beste bat da, Zuzentaruaren printzipioen aurka doa. Printzipio hauek prebentzioa, bereizitako bilketaren eta materia organiko konpostatzearen aldeko apustu sendoa egiten dute. PIGRNak ordea erraustegia hartzen du lehentasun nagusitzat. Plan honek, erraustegia defendatzen duten beste askok bezala, hondakinen zuzentarau europarrak exijitzen duen hierarkia modu "malguan" aplikatzen du, prebentzioa eta birziklapena salto eginez eta zuzenean erraustera pasatuz.

d) Hiritarren partehartze eza eta informazio falta

Plana eratzeko prozesuan hiritarren partehartzea hutsaren hurrengoa izan da. Plana geldiaraztea edo erraustegia ez eraikitzea exijitzen zuten alegazio guztiak hasieratik baztertuta geratu dira. Planean ez dago neurri zehatzik, ez aurrekontu partidarik, azterketa huts bat da eta ez ekintza plan bat. Zehazten den gauza bakarra erraustegiarentzako aurrekontua da, 200 milioi euro. Gehiegitxo beharrezkoa ez den eta beste kudeaketa eredu egokiagoak bertan behera utziko dituen azpiegitura baten-tzat.

4. ELAren proposamena

Arrazoi guzti hauengatik ELAk uste du plan hau erraustegia inposatzeko tresna

dela eta ez hondakinen kudeaketa arduratsu bat ezartzeko tresna. Ekonomikoki, sozialki eta ingurumen ikuspuntutik benetan jasagarriak diren neurriak hartzea exijitzen dugu. Hondakinen bilketa selektiboa egiteko inongo sistemarik eta hondakinen tratamendu jasagarriarik ez baztertzeko exijitzen dugu, batzuentzat erraustegia negozio errentagarria izateagatik soilik baztertzen baitira. Onartezina da Nafarroa hurrengo 50 urterako ekonomikoki hipotekatzea, eta aldi berean, hurrengo belaunaldiei osasun eta ingurumen baldintza egokiak ukatzea.

ELAk PIGRNa geldiaraztea eta Nafarroaren benetako garapen jasagarria bideratuko duten neurriak hartzea exiji-

tzen du, eta baita gure osasuna eta ingurumenaren lepotik aberasten ari diren gutxi batzuen interes ekonomikoak alde batera uztea ere:

- **Printzipio bakartzat 3Rak izatea: murriztu, berrerabili eta birziklatu. Hauen aldeko politikak bultzatzea.**
- **"Atez atekoa" bezalako hondakin bilketa bereizturako sistema eraginkorra ezartzea**
- **"Etxeko konpostajea" bultzatzea.**
- **Zero Zabor helburua betetzeko hondakin mota guztien tratamendurako instalazioak eraikitzea.**
- **Behin betiko erraustegia baztertzeta.**

